

ON ANTONIO TRUEBA-KOAREN OBIAN.



Ill da Bizkaiko aitona; maite nuen, eta orla deitu nai diot.

Egúnak, denboraren bágak, eraman zuten bere izena itsasoz aronz, eta erriz-erri. Egúnak eraman dute, oraiñ, gure zai dagon portu ederrera, zeifnean egunik ez dan, denborik ez.

Guretzat gelditzenda denbora, bere pena, oñaze eta ekaitzakiñ; baita ere ¡a!... bere esperanzakiñ.

¿Nórk ez daki On Antonio gurgarriak zenbat gauza eder izkribatu zituen? Eskutik-eskura dabiltza, gure lurrean nola lur arrotzetan, eguzkiak beti argi egiñik izkribu ayek irakurtzeko munduko alde batean edo bestean. Baña ¡a! baserri zar-zar artan, arratsaldean, matsaren itzalpean, Maricho ta Perucho kontu-kontari ikusten ditudanean, an agertzen zait neri On Antonio Trueba jauna.

Eta gero, aronzago, mendi egalean, Ama Birjiña Begoña-koaren ezkillilla sentitzen detanean, ¡poztutzen naiz oso!, ustedet errepikan dabilela, On Antonio-ren anima Zeruratu dalako; zergatik anima arrek maite zuen Ama Birjiña, eta Ama Birjiña, Euskal-erriko Erregiña, egiaz maite duenik ez da geldituko Zeruratu gabe.

ANTONIO ARZÁC.

